

IKASKETA DESBERDINAK ALDI BEREAN EGITEARI BURUZKO ARAUTEGIA, EKONOMIA ETA ENPRESA FAKULTATEKOA

Ikasketa desberdinak aldi berean egiteko ezarriko den araudia UPV/EHUK ikasturte bakoitzerako onartzen duen **Graduko Ikasketen Gestiorako Arautegia** da.

Unibertsitateko ikasleen arloko araudiarekin bat etorrita, Ekonomia eta Enpresa Fakultateko Batzarrak, **2018ko maiatzaren 10ean** egindako bileran, Akademia Antolakuntzako Batzordearen proposamenari jarraituz, honako baldintzak onartu zituen ikasketa desberdinak aldi berean egin ahal izateko:

Ikaslea UPV/EHUko beste ikastegi batekoa edo beste unibertsitate batekoa bada, eskaria Campuseko Errektoreordetzan edo Sarbide Bulegoan aurkeztu behar du, UPV/EHUko Gestio Akademikoko Arautegian zehaztutako epean.

Jatorrizko ikasketak Ekonomia eta Enpresa Fakultatekoak badira, fakultateko idazkaritzan aurkeztu behar da eskaria, arautegian lehenengo mailako ikasleentzat zehaztutako epearen barruan.

Ekonomia eta Enpresa Fakultateko bi gradu aldi berean egin ahal izateko, **nahitaezkoa izango da eskaria egiterakoan gutxienez 120 kreditu izatea gaindituta jatorrizko ikasketetan, lehenengo kurtsoa osorik izanda**

Behin hasita, ikasketa desberdinak aldi berean egiten jarraitu ahal izateko, matrikulako kredituen % 60 gainditu behar dira, gutxien dela. Baldintza hori bete ezean, bertan behera utzi beharko da graduetako bat, ikaslek berak aukeratzen duena.

Fakultatean eskainitako gradu bakoitzean, **gehienez ere 10 eskari onartuko dira ikasketa desberdinak aldi berean egiteko**; graduak ikastegi batean baino gehiagotan eskaintzen badira, kopuru hori ikastegi bakoitzerako izango da.

Eskariak gehiago badira, **jatorrizko graduko espediente akademikoko batez besteko notaren arabera aukeratuko dira**.